



**IBARRAKO EMAKUMEEN
ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO II.
PLANA
2021**



IBARRAKO
udala



EMKUNDE

EMAKUNEAREN EUSKAL ERREALITATEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiatuena

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

EMAKUNDEK DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUA



AHOLKULARITZA ETA DINAMIZAZIO TEKNIKOA

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	4
2.	MARKO NORMATIBOA ETA EGITURAZKOA.....	6
	EAEko 4/2005 Berdintasun Legea, otsailaren 18koa:	6
	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana:	8
3.	PLANA GARATZEKO METODOLOGIA	9
	Lanerako prozesua	9
	Parte-hartzaileak.....	12
	Prozesuak jarraitu dituen printzipioak:.....	14
4.	EKINTZA PLANA	17
	GOBERNU ONA.....	18
	I. ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	28
	II. ardatza: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA.....	35
	III. ardatza: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK.....	42
5.	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	48
	Berdintasun planaren kudeaketa sistema.....	48
	Aurrekontua	50
	Planaren ebaluazio-sistema	50
6.	ERANSKINAK.....	52
	Ekintzen betetze mailaren ebaluaketa.....	52
	Neurrien ebaluazioa	53
	Programen ebaluazioa	54

1. SARRERA

Ibarrako Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lana egiteko apustu eta konpromisoa aspaldikoa da. Dagoeneko hamarkada bat baino gehiago pasa da Ibarrako Udaletik emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politiken sistematizazioari heltzeari ekion zitzaiola. Mugarri garrantzitsua 2011an Politika Feminista eta Aniztasuna saila sortzea izan zen, Udal mailan lanketa feminista txertatzeko estrategiaren baitan urrats garrantzitsua. Honek bultzada berezia eman zion lanketari, presentziaz gainera aurrekontu propioa bermatzen ekarri baitzuen.

Hastapeneko urratsak, hasiera guztietan eman ohi den bezala, feminismoaren inguruko data esanguratsuen ospatzearekin eta aldarrikapenekin lotutako ekintzak izan ziren gehienbat. Denborarekin, ekintza guzti hauen arteko lotura eta lanketa honetan sakontasuna emango zion tresna baten beharraz ohartzearekin, Ibarrako I. Berdintasun Planaren diseinuari heltzeko apustua egin zen. Lehengo 2013an emakume eta gizonen berdintasunari buruzko herri mailako lehen diagnostikoa egin zen. Ondoren, diagnostikoak mahaiaren gainean jarri zituen ondorioak aztertuta, 2016an Ibarren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana diseinatu zen, 2017-2020 epe-tartean herriko politika feministak gidatuko zituen plan bat.

Epe-tarte hori amaituta, eta politika feminista horietan aurrera egiteko asmoz, I. plan horren ebaluazioa eta II. Berdintasunerako planaren diseinuari ekin zitzaion 2021 hasieran. Hau da, azken urtetan egin den ibilbidea ebaluatu, ibilbide honen egokitasuna aztertu eta aurrera begirako lehentasunak ezarri dira. Ondoren, Ibarrako I. Berdintasun plana ebaluaketan oinarrituta II. Berdintasun Plana diseinatu da.

Berdintasun Plan batek, berdintasunaren aldeko lana antolatzeko gai edo arlo jakin batzuk barne-hartzen ditu. Arlo horien baitan helburu estrategiko batzuk kokatzen dira, beti ere herriaren eta herritarren errealitate anitz konkretura egokituko direnak. Helburu estrategiko bakoitzaren baitan, berriz, helburu hori lortzeari begirako neurri eta ekintza konkretu batzuk jasotzen dira, zuzenean ekintzara edo esku hartzera pasatu eta lanean jartzeko.

Ondorioz, Berdintasun Planak, nolabait esateko, epe eta leku jakin batean gauzatu beharreko plangintza edo lan egitarau bat lirateke. Ez da ahaztu behar tresna gisara ulertu behar direla: berdintasunaren alde garatu beharreko lana sistematizatzea ahalbidetzen duten tresnak dira.

Oro har, herritar denei zuzentzen zaizkie, emakume zein gizonei, eta Udaleko arlo zein gizarteko eragile guztiei. Izan ere, zeharkakotasunez berdintasuna esparru guztietatik sustatzea ezinbestekoa da.

Dokumentu honetan, II. Plana kokatzen den marko normatiboaz, erabilitako metodologiaz eta garatutako lan-prozesuaz hitz egiten da lehenik. Ondoren, marko normatiboak ezarritako egitura jarraituaz, Ibarako II. Berdintasun Planaren helburu, neurri eta ekintzak biltzen dira, lau ataletan banatuta. Azkenik, II. Plan honen jarraipen eta ebaluazioa garatzen da.

Hurrengo ataletan jasotzen ditugu prozesu osoaren nondik norakoak.

2. MARKO NORMATIBOA ETA EGITURAZKOA

Berdintasun Planak diseinatu ahal izateko, badago egiturazko marko normatibo orokor bat ezartzen duten parametro batzuk. Ibarako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana diseinatzen hasteko ere, parametro hauek baliatuko ditugu, ezinbestean (Berdintasun Plan guztiak egokitu behar baitira marko orokor honetara).

Honela, jarraian sakonago azaltzen diren bi parametro nagusi hauek jarraitu dira: batetik, EAEko Emakume eta Gizonen arteko Otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasun Legea, eta bestetik, Emakundek garatutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

EAEko 4/2005 Berdintasun Legea, otsailaren 18koa:

Lege honen helburua emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea da, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugekin hautsiz. Horretarako:

(...) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu legeak, eta zenbait neurri ere arautzen ditu. Neurrian xedea da emakumeek eta gizonek bizitzaren arlo guztietan aukera eta tratu berdinak izan ditzaten bultzatzea eta bermatzea¹ (...).

Legeak bi estrategia azpimarratzen ditu:

- Batetik, genero ikuspegia txertatzeari buruzko neurriak biltzen ditu, honen bidez posible baita emakume eta gizonek gizartean betetzen dituzten rol edo postuak ezberdinak eta desorekatuak direla ohartzea. Neurri hauek desoreka edo ezberdintasun horiek neutralizatzen bideratuak daude.
- Bestetik, ekintza positiboen inguruko neurriak leudeke, zeinak emakumeek abiapuntuan dituzten desabantailak orekatzeko estrategia bat osatuko luketen. Estrategia edo neurri multzo hau, aukera berdintasuna bere baitan oreka hori sortzeko gai ez denean baliatuko litzateke.

¹ Iturria: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Udalaren eskumen eta funtzioak:

Lege honek, bestetik, berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzak bete beharreko zereginak zehazki definitzen ditu, eta horrez gain, herri botere guztiak behartzen ditu benetako berdintasuna lortzeko baldintzak ezarri eta oztopoak kentzera, horretarako beharrezkoak diren politika eta ekintzak sustatuz.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta Foru-Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, baita bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- Emakumeei eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundearen xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek erroten kentzeko neurriak hartzea.

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana:

Emakundek aurkeztutako VII. Plan honek bi zutabe nagusi ditu:

- Batetik, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko, nahitaezkoa da legediaren eta politika publikoen bidezko “Gobernu on” bat bermatzea. Lehen atalean horri begirako neurriak zehazten dira, beraz.
- Bestetik, hiru ardatz ezberdin bereizten dira, lehentasunez landu beharreko 3 gai nagusi jasotzen dituztenak: emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte antolakuntzaren eraldaketa eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

“Gobernu onaren” zein 3 ardatz hauen baitan programa edo lan-ildo nagusi batzuk markatzen dira, ondoren herriko errealitateari egokitutako helburu estrategiko batzuk markatzeko orientagarriak gerta daitezkeenak. Hurrengo taulan zehazten dira Emakunderen VII. Planak jasotzen dituen ardatz edo atal bakoitzeko programak:

		ARDATZAK		
Gobernu ona		Emakumeen ahalduntzea	Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea	Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak
PROGRAMAK	Konpromiso politikoa	Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea	Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea	Sentsibilizazioa eta prebentzioa
	Berdintasunerako trebakuntza	Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea	Emakumeen autonomia ekonomikoa	Detekzioa, arreta eta berroneratzea
	Genero ikuspegia lan prozeduretan		Zaintza-lanen ekonomia feminista	Erakundeen arteko koordinazioa
	Koordinazioa eta elkarlana			
	Parte-hartzea eta eragina			

3. PLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Ibarrako II. Berdintasun Planaren diseinua garatzeko baliatu den prozesuaren metodologiari dagokionez, atal honetan jarraitu den lan prozesua deskribatuko da, baita prozesuan parte hartu dutenak ere. Azkenik, prozesu honek jarraitu dituen printzipioak ere jaso dira. Prozesuak berak ere garrantzia daukala sinetsirik, partaidetza eta emakumeen ahalduntzea erdigunean jarri nahi izan duen prozesua izaten saiatu baita.

Lanerako prozesua

Ibarrako II. Berdintasunerako planaren diseinua I. Planaren ebaluaketaren ostean, eta berau oinarri hartuta, abiatu zen prozesu bat izan da, ebaluazio prozesuarekin oso lotuta egon da, bata bestearen segida bat bezala.

Atal honetan zehazten dira, burutu den Ibarrako II. Berdintasun Planaren diseinurako lan-prozesuak bete dituen fase, urrats eta ekintza ezberdinak.

II. Plana diseinatzeko prozesuan I. Berdintasun Planaren ebaluaketatik jasotakoa izan da oinarri. Horrez gain, II. Planaren diseinu honetan berebiziko garrantzia izan du plana egitearen prozesuak berak. Hau horrela izanik, partaidetzako prozesu bat izatea bilatu da, printzipioetan aipatu ditugun “errealismoa” eta “konpromisoa” benetan gauzatzea izan delarik helburu. Gainera, lan prozesua sentibilizatzeko, elkar ezagutzeko eta elkarlanerako sareak sortzeko ere baliatu nahi izan da.

Ibarrako II. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana osatzeko prozesuak 4 fase ezberdin izan ditu:

1. fasea: Laiatuz Berdintasuna Bultzatu lan saioa
2. fasea: Kontrastea egin konpromisoak topatzeko lan bilerak
3. fasea: Konpromisoen berreztea
4. fasea: Kontsultatu – onartu – aurkeztu

1. Fasea: LAIATUZ-BERDINTASUNA BULTZATUZ lan-saioak

Laiatz lan saioa teknika parte-hartzailearen filosofiarekin jaio zen, eta bere jatorria laiatze jardueratik dator:

“Laiatz lurra iraultzeko erabili ohi zen tresna zen. Laiatz goldea baino erabilgarriago zen lurra sakonago irauli nahi zen lekuetan, eta laiatzeak talde lanaren beharra zuen” [wikipedia]

Beraz, auzolanaren filosofia eta laiatze ekintzaren ezaugarriak ekarri nahi izan dira plan honetara, gaur egun Ibarren emakumeen eta gizonen arteko egoera iraultzeko talde lana ezinbestekoa baita. Saio hau politikoekin eta sail ezberdinetako udal teknikari eta langileekin burutu da eta bere helburua I. planaren ebaluaketatik ateratako ondorioetatik planaren diseinurako lehen hurbilketa burutzea izan da. Saio honek hiru helburu nagusi izan ditu:

- Ebaluaketa publikoki aurkeztu eta ateratako ondorioak ezagutzera ematea.
- Berdintasunaren inguruko politikarien eta udal teknikari/langileen lehentasun, kezka eta proposamenak jasotzea.
- Denen artean diseinatuko den II. Planaren ardurak hartzea.

Udaleko sail ezberdinetako teknikari eta politikoekin egin den lan-saioan ebaluaketaren emaitzak sozializatuz irakurketa kolektibo eta partekatua oinarritzat hartu da, Planaren helburu eta ekintzen inguruan hausnartu eta erabakiak hartzeko, bakoitzak bere espaziotik Ibarren Emakume eta Gizonen Berdintasuna bultzatzeko egin dezakeenaren inguruan hausnartu eta planerako ekintzak proposatu dira.

Parte-hartzaileak:

- Nagore Zubillaga, Ongizate zinegotzia
- Agurtzane Arribillaga, Politika feminista eta aniztasun gaien zinegotzia
- Kris Martinez, Euskara eta hezkuntza gaien zinegotzia
- Koldo Cid, EAJko zinegotzia
- Xabier Jauregi, Ongizate saila
- Itziar Agirrezabala, Hirigintza
- Itziar Basabe, Obra eta zerbitzuak
- Nekane Azurmendi, Kultura eta gazteria
- Tomas Ugaldebere, euskara, hezkuntza eta kirola
- Xabier Zilbeti, Udaltzaingoa
- Lierni Muñoa, Ogasuna

Saio honetan jasotakoarekin Ibarako II. Berdintasun Planaren lehen zirriborroa osatu da. Aurrerago Planean jaso diren helburuak betetzeko dokumentu ulergarri, erabilgarri eta erakargarri bat egiteko esfortzua burutu da. Ibarako II. Planak Emakundeko VII. Planaren oinarriak jarraituko ditu eta ondorengo atalak izango ditu:

- Diagnostikoa eta egoeraren analisia.
- Helburuak eta ekintzak.
- Arduradunak.
- Indikatzaileak.
- Kronograma.
- Aurrekontua.
- Kudeaketarako sistema eta egitura.
- Ebaluaketarako sistema eta egitura.

Behin egitura definituta, planaren atal bakoitza landu da zehaztasunez. Planaren edukiak ere Emakundeko VII. Planaren ardatzen arabekoak izan direlarik (marko normatibo eta egiturazkoaren atalean zehaztu dira zeintzuk diren).

2. Fasea: PLANAREN LEHEN KONTRASTE ETA KONPROMISOA LANTZEA

Behin, udal sail bakoitzetik planerako ekintza proposamenak jasota eta lehen plangintza zirriborroa osatuta, honen kontrastea egin da Politika Feminista eta Aniztasuna eta Gizarte Zerbitzuak sailetakoko teknikari eta politikariek eginiko lan bilera batean.

Lan bilera honetan ekintzaz ekintza kontrastatu da plan osoa ekintza bakoitzaren egingarritasuna, ekintzaren arduraduna(k), ekintza burutzeko epeak eta aurrekontua zehaztuz. Lehen kontraste honekin, plangintza txukundu eta udal sail guztiei bidali zaie haien azken kontrastea egiteko.

Aldi berean, berau herriko eragile ezberdinekin ere kontrastatu da, herriko eragile ezberdinen iritzia eta ekarpenak jasotzeko burututako lan-saioaren bitartez. Saio honetan, I. planaren ebaluazio prozesuan herriko eragileek egindako proposamenak eta udaletik jasotakoekin osatutako plangintza partekatu da, eta haien ekarpenak jaso dira, bakoitzak bere esparrutik Ibarren Emakume eta Gizonen Berdintasuna bultzatzeko egin daitezkenaz hausnartuz eta berdintasunaren aldeko ekintzen konpromisoa hartuz.

Parte-hartzaileak:

- Uzturpe ikastola.
- Deabruak kalera Ibarako talde feminista.
- Lauburu futbol taldea.
- Hauspoa, Ibarako elkarten elkarte.
- Gaztezulo.²

Fase honetan jasotako ekarpen guztiekin behin-behineko planaren dokumentua osatu da.

3. Fasea: KONPROMISOAK BERRESTEA

Azken fase hau udal politikariekin egin da, haiek bait dute ardura gorena konpromiso hauek aurrera eraman ahal izatekoa, eta horretarako behar diren bide eta baliabideak bermatzekoa. Aurreko saioetan landu denaren inguruko konpromisoak finkatu dira, plana aurrera eramango dela ziurtatzeko.

4. Fasea: KONTSULTA PUBLIKOA – ONARPENA - AURKEZPENA

Azkeneko fase honetan hiru pausu eman dira:

- Kontsulta publikoa: plana udaleko web orrian jarri da herritarrek egin behar dituzten alegazio guztiak egiteko aukera emanez. Ez da inolako ekarpenik egon.
- Emakunderen oniritzia: planak Emakunderen oniritzia jaso du, proposatzen dituen lan-lerroekin bat egiten duela ziurtatuz.
- Alegazio tarte amaituta, Plana plenoan onartu da.
- Plana publikoki aurkeztu da. Horretarako, deialdi publiko bat eginez gonbitea luzatu zaie Ibarako herritar, talde eta elkarte guztiei.

Parte-hartzaileak

Hauek izan dira prozesu honetan parte-hartu dutenak eta izandako funtzioak:

- **Gizarte Zerbitzuak eta Politika Feminista eta Aniztasun sailak:** diagnostiko fasean bezala, bi sail hauek osatzen duten teknikari eta politikoak izan dira prozesuaren gidaritzak izan dutenak. Hauek izan dira sail hauen arduradun gisa parte hartu dutenak:

² Saioan parte hartu ez bazuten ere planaren zirriborroa haiekin partekatu eta beraien ekarpenak egin zituzten.

- Agurtzane Arribillaga: Politika Feminista eta Aniztasun eta kiroletako zinegotzia.
 - Nagore Zubillaga: Alkateordetza, Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia.
 - Xabier Jauregi: Gizarte Zerbitzuetako teknikaria.
- **Udaleko sail ezberdinak:** Diagnostiko fasean egin bezala, eta hari segida emanaz Udaleko sail ezberdinetako teknikari eta politikoekin saio bat egin zen planerako ekintzak jasotzeko, ondoren, behin plangintza osatuta ekarpenak egiteko aukera ere izan zuten. Honako sail hauek parte hartu dute:
- Alkatetza
 - Ogasuna
 - Gazteria eta Kultura
 - Hirigintza
 - Obra eta Zerbitzuak
 - Euskara, Kirola eta Hezkuntza
 - Ingurugiroa
 - Udaltzaingoa
- **Herriko eragileak:** diagnostiko fasean egindako bilera, galdetegi eta elkarrizketak oinarri hartuta planerako herriko eragile ezberdinen proposamenak jaso ziren, ondoren, behin plangintza osatuta beste bilera bat egin zen haien ekarpenak jasotzeko. Hauek izan dira parte-hartu dutenak:
- Deabruak Kalera Ibarako talde feminista.
 - Uzturpe Ibarako ikastola.
 - Hauspoa, Ibarako elkarten elkarte.
 - Lauburu futbol taldea.
 - Gaztezulo
 - Sendi Ekintza elkarte

Prozesuak jarraitu dituen printzipioak:

Emakumeen ahalduntzea erdigunean duen partaidetza prozesuaren PRINTZIPIOAK:

- **Partaidetza:** Parte-hartzea ez da informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatzea. Izan ere, benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen da. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira, eta horretarako, bidea lan-prozesua bera izango da. Bestalde, ahalegin berezia egin behar da parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, eta egituratuta edo antolatuta dauden emakumeetatik harago joan dadin zein interseksionalitatearen lanketa integratu dezan. Horretarako, bitartekoak jarri eta kanalak sustatzea ezinbestekoa da.
- **Komunikazioa:** Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da uneoro, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan, besteak beste, emakumeei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidapena egiteko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab. Parte hartze prozesuak diseinatzen direnean, behar-beharrezkoa da, beraz, prozesu horien komunikazioa diseinatu eta garatzea.
- **Malgutasuna:** Prozesuaren oinarria pertsonak dira. Horrenbestez, pertsonekin lan egitean oinarritzen denean prozesua, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan behar dute. Prozesua abiatu aurretik eta irauten duen bitartean, prozesuaren arduradunek eta parte-hartzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak proposatu behar dituzte eta, egokitzat jotzen diren neurrian, prozesuan zehar doiketak egin beharko dira.
- **Hezkuntza - prozesua:** Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan behar du. Horrek esan nahi du, emaitza ez ezik, prozesuaren xedeak ere izan behar duela bertan parte hartzen dutenek (norbanako, talde eta erakundeek) prozesuan ikastea, ezagutza elkarrengandik jasotzea eta elikatzea, elkarrekin elkarbanatuz. Partaidetza-prozesu batek eraldaketa eta hobekuntza prozesu bat izan behar du.

- **Subjektibitatea:** Prozesuaren ardatza emakumeak dira eta, horregatik, pertsonen sentimenduek, bizipenek eta pertsonen arteko harremanek pisu nabarmena dute prozesuaren urrats guztietan; besteak beste, egitasmoaren partaide diren kideen arteko ezagutza eta konfiantza landu behar dira, beraien arteko giroa ona izan dadin eragiteko. Bilerak dinamikoak izan behar dira, eta ondo pasatzeko helburua ere barne hartu behar dute. Honela, prozesua bizipen positibo eta aberasgarria izatea ere lortuko baita. Eraldaketa prozesua arrakastatsua izateko, beharrezkoa da jarrerak aldatzea eta norbanako bakoitzaren alderdi “pertsonala” ukitzea, hots, subjektibitatea lantzea. Modu berean, eraikuntza kolektiboa egiteko ere ezinbestekoa da. Subjektibitateak oso lotuta daude emakume izateko modu ezberdinekin, identitate aniztasunarekin eta bizitzeko modu ezberdinekin.
- **Ahalduntzailea:** Prozesuek batzuetan emaitzak baino garrantzia gehiago dute, hau da, prozesuak berak egiten zaitu emaitza baten parte. Beraz, proiektu honen urrats guztiek parte hartzen duten emakumeak jabetzeko helburua izan behar dute. Jabetzeaz hitz egiten dugunean ez gara ari soilik dituzten desabantailaz eta honen aurrean tresnak sortzeaz, baizik eta edozein espaziotan eta egoeretan eman daitezkeen botere harremanez jabetzeaz, baita berdinen artean ere.

Berdintasun Planek bete beharreko BESTE PRINTZIPIO GIDARI batzuk:

Bestetik, badira beste printzipio gidari batzuk, ez zaizkionak hainbeste atxikitzen partaidetza prozesuei, baina Berdintasun Plan bat garatzean kontuan eduki behar direnak.

- **Errealista izatea:** Plan bat diseinatzerako garaian, kontuan izan behar da, bere helburua ez dela txosten huts bat izatea, baizik eta, lehen aipatu moduan, berdintasunaren aldeko lana sistematizatzea ahalbidetuko duen eta lana erraztu zein bideratuko duen tresna bat dela. Ondorioz, bere helburua aplikatu behar dutenen lana erraztea bada, subjektu hauen ezaugarrietara egokitu beharko du, tresna erabilgarria izateko, eta horrez gain, aplikatuko den edo eraldatu behar duen errealitatera ere egokitu beharko du, eraginkorra izateko. Guzti horri deitzen zaio plan errealista izatea, bere ingurura egokitzen delako eta horrek, “gauzagarria” egiten duelako.

- **Konpromisoa jasotzen duena:** Bestetik, Berdintasun Plan baten eraginkortasuna eta gutxieneko arrakasta bat lortzeko, beharrezkoa da plan hau aurrera eraman eta bete behar dutenen konpromisoa jasotzea. Planarekiko konpromiso maila bat bermatzea ezinbestekoa litzateke, eta ondorioz, plana bera, konpromiso horiek lortzera begira ere eraiki beharko da, neurri batean behintzat (nahiz eta ez den hori izango planaren helburu nagusia).

- **Herritar guztientzako:** Planak dagokion errealitatean, hau da, Ibarako herrian eta bertako herritarrengan eragiteko helburua du, eta hargatik, herritar guzti horiengana iristea bilatu behar du. Horretarako, batez ere herriko emakume ezberdinen beharra, ezaugarriak, egoerak eta interesak bildu eta kontuan izan behar ditu. Planean jasoko diren ekintzek ere aniztasun hau jasoko dute.
Hala ere, emakumez gain, gainerako herritarrengan eragiteko helburua ere izango du planak, eta hargatik, guztien parte hartzea edo inplikazioa bilatuko dituen plana izan behar du. Horretarako, herriko subjektu eta eragile ezberdinei zuzenduko zaizkien ekintzak planteatuko ditu.

- **Zerbitzu eta baliabideak egonkortuko dituen:** Horrez gain, planean jasotzen diren helburu eta ekintzen bidez, udal esparru ezberdinetatik luzatzen diren zerbitzu eta baliabideak egonkortzea ere lortzen da, berdintasunaren bidean. Horretarako, proposamen berriak edo lehendik dauden zerbitzu eta baliabideak optimizatzeari begirako ekintzak tartekatu izan dira.

- **Plan ebaluagarria:** Azkenik, burututako plana ebaluatzea ere ezinbestekoa izango da (l. Berdintasun Planarekin jada egin den moduan), praktikan, planaren eraginkortasuna zenbaterainokoa izan den aztertu eta aurrera begira kontuan izateko iradokizunak identifikatzeko.

4. EKINTZA PLANA

GOBERNU ONA

Ibarrako udalean emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko pausuak emateko, beharrezkoa da aukera berdintasunerako politikak udaleko arlo guztietatik zeharkakotasunez bultzatzea. “Gobernu Onaren” atala da ikuspegi honen atzean kokatzen den teoria eta hurrengo esanahia du: Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasun ikuspegia (Europako Kontseilua, 1998).

Atal honen barruan 5 programa nagusi jasotzen ditu Emakunderen VII. Planak:

- I. programa: **Konpromiso politikoa**
- II. programa: **Berdintasunerako trebakuntza**
- III. programa: **Genero ikuspegia lan prozeduretan**
- IV. programa: **Koordinazioa eta elkarlana**
- V. programa: **Parte hartzea eta eragina**

1. programa: KONPROMISO POLITIKOA

Neurria: G1 Berdintasunaren gaiari buruzko berariazko araudia onartzea eta garatzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G1-1	Ibarrako Berdintasunerako II. Plana udal teknikari eta politikarien artean zabaldu eta denentzako lanerako tresna izan dadin lanketa egitea.	Politika feminista eta aniztasun saila + Komunikazio arduraduna/enpresa						II. Plana udal teknikari eta politikarien artean zabaldu da. Plana helarazi zaion teknikari eta politikari kopurua.
G1-2	Ibarrako Berdintasunerako II. Plana herriko eragile eta norbanakoen artean zabaldu, herriko berdintasun politiken erreferentzia bilakatzuz.	Politika feminista eta aniztasun saila + Komunikazio arduraduna/enpresa						II. Plana udal herriko eragileen artean zabaldu da. Plana helarazi zaion eragile kopurua.
G1-3	Ibarrako Berdintasunerako II. Plana Udalaren web orrian zintzilikatu eta herriko aldizkaria edo hedabidean planaren inguruko erreportaje bat publikatu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Komunikazio arduraduna/enpresa						Plana web orrian zintzilikatu den. Planaren berri hedabideetan eman den aldi kopurua.
Neurria: G2 Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G2-1	Feminismo eta aniztasun sailaren aurrekontua handitzen joan urtez urte.	Udal Gobernua					% 2ko igoera	Aurrekontua igo da. Igoera hori zenbatekoa izan da.
Neurria: G3 Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G3-1	Plana oinarri hartuta 2 urterako plan operatiboak egitea parte hartuko duten sail guztiekin koordinatuta.	Politika feminista eta aniztasun saila + Sailarteko Feminismo mahaia						Urteroko plan operatiboak. Plan operatiboak egitean koordinatu diren sail kopurua.

G3-2	2 urtero egindakoaren ebaluaketa egitea, plan operatiboa eta adierazleak kontutan hartuta.	Politika feminista eta aniztasun saila + Sailarteko Feminismo mahaia							Ebaluaketak egitea.
Neurria: G4 Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak	
G4-1	Berdintasuneko aholkularitza dinamizatzailea kontratatzea.	Politika feminista eta aniztasun saila + Pertsonal saila					15.000€/urtean	Berdintasuneko aholkularitza dinamizatzailea kontratatzea.	
G4-2	Udal mailan berdintasun gaiak zeharkakotasunez lantzeko sailen arteko feminismo mahai bat sortzeko prozesua egin eta mahaia sortu.	Politika feminista eta aniztasun saila						Mahaia sortzea. Mahairen sorrera prozesuan parte hartzen duten sail kopurua eta sail bakoitzetik datorren pertsona kopurua, sexuka banatuta. Mahaian parte hartuko duten sail kopurua.	
G4-3	Sailetik bultzatuko diren ekimenak bultzatzen lagunduko duten diru-laguntzen azterketa eta tramitazioa (esaterako, GFAko partaidetzako diru-laguntzak).	Politika feminista eta aniztasun saila						Eskatutako diru-laguntza kopurua. Diru-laguntzen bitartez finantziatutako proiektu edo ekimen kopurua. Jasotako diru-laguntzen zenbatekoa.	
G4-4	Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektuan parte-hartzen jarraitu lbarrako emakume ezberdinen beharrak kontutan izanda.	Politika feminista eta aniztasun saila					8.000€	Proiektuaren barne parte hartzen den momentu kopurua. Proiektuari egiten zaion ekarpen kopurua. Ibarrako emakumeen balorazioa.	

2. programa: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA

Neurria: G5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G5-1	Feminismoan oinarrizko formakuntza saioak eskaini udaleko sail eta langile guztientzat.	Politika feminista eta aniztasun saila + Pertsonal saila					1.000€/urtean	Formakuntza saioak egitea eta jasotako formakuntzaren ordu kopurua. Formakuntza saioetan parte hartutako langile (sexuka banatuta) eta sail kopurua. Formakuntza jaso duten langileen asebetetze maila.
G5-2	Prozedura tekniko-administratiboan genero ikuspegia txertatzeko formakuntza eskaini idazkariari eta kontu-hartzaileari.	Politika feminista eta aniztasun saila + Pertsonal saila					Berdinbideanen bitartez	Formakuntza jasotzea eta jasotako formakuntzaren ordu kopurua. Formakuntza saioetan parte hartutako langile (sexuka banatuta) eta sail kopurua. Formakuntza jaso duten langileen asebetetze maila.
G5-3	Katalogo bat egin udalaz gaindiko erakundeetatik eskaintzen diren arlo ezberdinetako berdintasun formakuntzen inguruko informazioarekin eta langile guztien artean zabaltzea haien intereseko formakuntzak jasotzera gonbidatuz.	Politika feminista eta aniztasun saila + Pertsonal saila						Katalogoa egitea eta langileen artean zabaltzea. Katalogoa helarazten zaion langile kopurua, sexuaren arabera banatuta. Formakuntza horietara apuntatzen den langile (sexuaren arabera banatuta) eta sail kopurua. Jasotako formakuntza ordu kopurua. Formakuntza jaso duten langileen asebetetze maila.
G5-4	Feminismo eta berdintasunean formakuntza udal ordezkariarentzat legealdiaren hasieran.	Politika feminista eta aniztasun saila +					Berdinbideanen bitartez	Formakuntza saioak egitea.

		Pertsonal saila							Formakuntza saioetan parte hartutako ordezkari politiko kopurua, sexuaren arabera banatuta. Formakuntza jaso duten ordezkari politikoen asebetetze maila.
--	--	-----------------	--	--	--	--	--	--	--

3. programa: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

Neurria: G6 Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G6-1	Plegu, azterlan, eskaera-orri eta estatistiketan genero aldagaia txertatzea Berdinbideanen bidelaguntzarekin.	Idazkaritza + Politika feminista eta aniztasun saila						Genero aldagaia txertatzen den plegu, azterlan, eskaera-orri eta estatistika kopurua. Horiek txertatzen diren sailak.
G6-2	Biltzen diren datuak genero-ikuspegitik aztertzea, hasteko sail baten datuen analisiarekin hasi (esaterako etxetz-etxeko laguntza zerbitzua).	Sail bakoitza + Sailarteko Feminismo mahaia						Bildutako datuen analisia egitea.

Neurria: G7 Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G7-1	Udaleko lanpostu publiko berriak lortzeko eta barne-promoziorako hautaketa-prozesuetan berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat txertatze emakumeen ordezkariak %40koa baino txikiagoa den talde, eskala, maila eta kategoriatan.	Politika Feminista zinegotzia + Gizarte zerbitzuetako zinegotzia + Alkatea						Berdinketa kasuak hausteko emakumeen aldeko klausula ezartzea. Zenbat prozesuetan eta zein postutarako txertatu den klausula hau eta izan duen emaitza.

G7-2	Udaleko lanpostu publikoak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuetako epaimahaietan zein kontratazio-mahaietan klausula bat txertatzea, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin bultzatu.	Idazkaritza + Pertsonal saila						Epaimahai edo kontratazio-mahaia parekidea izateko klausula txertatzea. Epaimahai edo kontratazio-mahaia parekide kopurua.
G7-3	Hautaketa-prozesuetako gaitegietan berdintasunarekin lotutako edukiak sartzea.	Idazkaritza + Pertsonal saila						Gaitegietan berdintasunarekin lotutako edukiak sortu diren hautaketa-prozesu kopurua.
Neurria: G9 Komunikazioan berdintasuna txertatzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G9-1	Udaleko komunikazio-elementuak (idatzizkoak, irudizkoak, zein ahozkoak) berdintasunaren ikuspegitik aztertu eta komunikazio berdinak baten bidean hobetzekoak identifikatu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Komunikazio arduradun/enpresa						Komunikazio-elementuak berdintasun ikuspegitik aztertu izana. Hobetzeko identifikatu diren elementuak. Egokitutako dokumentu kopurua.
G9-2	Udal-komunikazioa berdinezalea izateko irizpideak jasotzen dituzten gidak topatu eta udal sail eta langile guztien artean zabaltzea eta kontuan izatea ziurtatu. Bide batez, irizpide ez arrazistak izango dituztela bultzatu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Komunikazio arduradun/enpresa						Gida zenbat langile (sexuaren arabera banatuta) eta sailen artean banatu den. Gidak irizpide ez arrazistak ere kontuan hartzen dituen.
Neurria: G11 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G11-1	Berdintasunean duten eragina aurretiko balorazioa egitea aurrekontuei. Prueba pilotu gisa sail bateko aurrekontuen azterketa eginez.	Politika feminista eta aniztasun saila + Idazkaritza					8.000-10.000€	Berdintasunean duten eragina aurretiko balorazioa egitea sail bateko aurrekontuei.

Neurria: G12 Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G12-1	Sail guztiekin elkarlanean genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsua diren egitasmoak identifikatu eta genero-ikuspegia txertatu. Adibidez: hirigintzako arrisku plana, Gizarte Zerbitzuetako programaren bat, herriko parke baten eraikuntza... Hasierako helburua zehaztu eta amaitzerakoan emaitza baloratuko da.	Sailarteko Feminismo mahaia						Egitasmoak identifikatzeko egindako sailen arteko saio kopurua. Saio hauetan parte hartu duten pertsona kopurua, sexuaren arabera banatuta. Genero-ikuspegia txertatutako egitasmo kopurua. Lortutako helburuen balorazioa.
G12-2	Sail bakoitzak aurrera eramaten diren egitasmoak genero-ikuspegitik ebaluatzeke adierazle zehatzak definitzea.	Sailarteko Feminismo mahaia						Egitasmoak genero-ikuspegitik ebaluatzeke adierazle definitu dituen sail kopurua. Saio hauetan parte hartu duten pertsona kopurua, sexuaren arabera banatuta.
G12-3	Antolaturiko ekimenetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua bermatzen saiatzea: sariketa, epaimahai, aurkezpen, ekitaldi publiko, txupinazo...	Politika feminista eta aniztasun saila						Ordezkaritza orekatua izateko eragin den ekimen kopurua. Antolaturiko ekimenetan ordezkariak orekatua izan dadin hartutako neurriak.
G12-4	<i>Liburutegi tutorizatua</i> ekimena genero ikuspegiarekin aurrera eraman (taldekatzerakoan eta boluntarioak bilatzerakoan). ³	Euskara eta hezkuntza saila						Ekimenean genero ikuspegia txertatzearekin batera kontutan izan diren aldaketak.

³ Adibidez:

-Tertulia Literarioetarako erabiltzen diren liburuak, sexu ezberdinetako diren idazle eta ilustratzaileenak aurkeztu. Ereduak eskainiz (Astris Lindger (Pipi idatzi zuen); Elena Odriozola.....)

-Tertulia Literarioetan, emakumearen momentu historiko ezberdinak azaldu eta jakin mina piztu (sufragistak, Pipl Galtzaluzer...))

									Partaideak (taldekakoak nahiz boluntarioak) sexuaren arabera antolatuta.
Neurria: G13 Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak	
G13-1	Udalak dituen hitzarmenak aztertu berdintasun ikuspegitik hobetzekoak dituztenak identifikatu eta hauetan genero aldagaia txertatzen hasi.	Idazkaritza + Politika feminista eta aniztasun saila						Genero aldagaia txertatu den hitzarmen kopurua.	
B13-2	Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasuna kontuan hartzen duten klausula sozialak txertatzeko prozesua egin eta aplikatu. Klausulak teknikari ezberdinen artean lantzeko aukera baloratu: feminismoa, euskara, arrazakeria, ingurugiroa... txertatzeko baliatuz.	Politika Feminista zinegotzia + Gizarte zerbitzuetako zinegotzia + Alkatea						Prozesua egitea bera. Definitutako eta txertatutako klausula kopurua. Klausulak txertatutako dokumentu kopurua.	

- Tertulia Literarioetako saioretan, liburutegian dituzten ipuinak aztertu eta klasikoen hausnarketa eta kritika bat egitera eraman.
- Alkatea Tertulietara joan zen moduan, alkate ordeak eta berdintasun teknikaria joateko gonbidapen luzatu.
- Eguberrietara begirako katalogoa, hausnartu idazle eta ilustratzaile ezberdinei erreparatuz eta parekidetasuna bilatuz.
- Tertulia Literarioen bitartez munduko emakume ezberdinen bizi egoera islatzen zaitu eta honen inguruan hausnarketak egin.
- Gurasoei gonbidapenak luzatu beren seme-albekin "emakumeen inguruko" tertuliak egitera.
- Liburu tutorizatueterako bileretan, gurasoetatik biak etortzeko ahaleginak egin.
- Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna, Gatazketan Sexu Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna edo Emakumearen Nazioarteko Egunean herriko hurrei (eskolaz kanpo) ere, ipuina batekin, ilustrazioa taillera batekin. Kontzientziazio eta sentsibilizazioa landu.
- Liburutegian "gune" bat sortu non "literatura feminista" irakurtzeko aukera egongo den. Hau lehiaketa moduan aurkeztu daiteke eta diseinu egokiena txertatu. (gazteei begira)
- Gurasoei haur eta gazte literatura "feminista" erakutsi eta partekatu, tertulia literarioak bideratuz eta begirada areagotuz

4. programa: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

Neurria: G14 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G14-1	Feminismo eta aniztasun sailak herriko Mugimendu Feministarekin eta bestelako herri eragileekin harremana formalizatu eta elkarlana bilatu. Horretarako herri mailan herriko eragileekin, eta bereziki mugimendu feministarekin, Feminismoaren inguruan mahai bat sortzeko prozesua egin eta sortu.	Politika feminista eta aniztasun saila						Mahaia sortzeko prozesua egitea. Prozesuan parte hartzen duten herri eragile kopurua, sexuaren arabera banatuta. Mahaia sortzea.
G14-2	Feminismo eta aniztasun sailak beste sailekin harremana eta koordinazioa bilatu. Horretarako, udaleko sailen arteko koordinazio eta elkarlana bermatzeko egitura, sistema eta formulak bilatzea eta martxan jartzea. Sailen arteko egitura sortzeko prozesua egin, eta martxan jarri.	Politika feminista eta aniztasun saila						Koordinaziorako egiten den saio kopurua. Saioetan parte hartzen duten sail eta langile kopurua, sexuaren arabera banatuta.
G14-5	Berdintasunarekin lotutako erakunde arteko koordinazio eta elkarlanerako espazioetan parte hartu. Udalerriaz gaindiko espazio eta sareetan parte hartu (Aldundia...).	Politika feminista eta aniztasun saila						Udalaz gaindiko zenbat espazio eta sareetan parte hartu den eta ze maiztasunekin/zenbat aldiz.

5. programa: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

Neurria: G16 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G16-1	Mugimendu Feminista eta herritarrek Feminismo eta aniztasun sailarekiko harremana bultzatzea, kontsultarako erreferentziatzeko espazio moduan. Esaterako, teknikaria kontratatzen denean sailaren berri herritarrei ematea tokiko komunikabideez baliatuz edo herri eragileak ezagutzeko erronda egin.	Politika feminista eta aniztasun saila						Erreferentzialtasuna egindako ekintzak. Ekintza kopurua. bultzatzeko

I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Ahalduntzeak “boterea eskuratzea” esan nahi du, eta beraz, prozesu bat litzateke non emakumeek beren posizio eta presentzia indartzen duten bizitzako esparru ezberdinetan, indibidualki zein kolektiboki. Marcela Lagarde y de los Ríos antropologoaren hitzetan, emakume bakoitzak besteentzat aritzeari uzten dionean ematen da: besteen, historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izatetik protagonista izatera pasatzen denean, bere bizitzaren subjektu bihurtuz.

Berdintasunerako VII. Planak argi uzten du ahalduntze honen beharra ezinbestekoa dela gizartean dauden desorekak apurtzeko eta NBE-ri egiten dio erreferentzia: NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana).

Ardatz honen barruan bi programa nagusi planteatzen ditu Emakunderen txostenak:

- **Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea:**
 - o Batetik, emakumeen autonomia, autoestimua eta autozaintza garatzen lagundu nahi da programa honen bidez, giza garapen iraunkorrean emakumeek eta feminismoak duten rola aitortuz, emakumeengan genero-kontzientzia sortuz eta emakumeen ongizate indibiduala eta osasuna hobetuz, Emakunderen VII. Planaren arabera.
 - o Bestetik, emakumeak gizarte-kategoria bat direnez beren eskubideekin, eta biztanleriaren erdia osatzen dutenez, baliabide eta zerbitzuen hobekuntza zein eraldaketa sustatzen dira, eskuragarriak izan daitezen eta emakume guztien beharrei erantzun diezaieten, beti ere euren aniztasuna aintzat hartuta.
- **Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea:** Programa honen bidez, eremu publikoetatik berdintasuna sustatzea bultzatzen da, eremu horietan emakumeen partaidetza sustatuz. Partaidetza hau, berdintasunaren lorpenean benetako eragina izango duen benetako parte hartze bat izatea bilatzen da emakumeek presentzia hutsa baino zerbait gehiago izan dezaten bizitza sozialean eta politikoan.

Jarraian, bi atal nagusi hauen baitan Ibarako errealitaterako identifikatu diren neurri eta ekintzak jasotzen dira.

1. programa: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

Helburua: 1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
1.1.1	Genealogia edo memoria feminista egitasmoak (ikerketak, erakusketak, omenaldiak...) sustatu emakumeek egindako ekarpenak, zein feminismoek egindakoak, ezagutu eta aitortzeko. Adibidez: lixibalekuak, emakume baserritarrak, zaintza langileak, kale izendegia...	Politika feminista eta aniztasun saila + Kultura saila					800€/urteko	Memoria feminista egin edo bultzatzeko egindako egitasmo kopurua. Memoria ariketa horretan "omendutako" emakumeen aniztasuna. Egitasmo horietan parte hartutako herritar kopurua (sexuaren arabera banatuta) eta haien aniztasuna. Egitasmo horiek bultzatzeko herri eragileekin egondako elkarlana.
1.1.2	Aurreko ekintzako emaitzak Ibarako herriko hezkuntza eragileekin elkarlanean hezkuntza proiektuetan txertatzea (txangoak, hitzaldiak, gaia gelan landu...). Kontutan izan ikastolak hau ekaina eta iraila bitartean egiten duela.	Politika feminista eta aniztasun saila + Kultura saila					300€/urteko	Elkarlanean egiten den egitasmo kopurua. Hezkuntza proiektuetan txertatutako lanketa kopurua. Bi espazioetatik egiten den balorazioa.
1.1.3	Eremu ezberdinetako emakumeen lanari aitortza eta haien lana bultzatu eta babestu. Adibidez sorkuntza eta kultura edo kirol munduko emakumeen lana babestuz eta bultzatuz.	Politika feminista eta aniztasun saila + Kultur saila						Egiten den hartu-eman edo ekimen kopurua. Hartu-eman edo ekimen hauen inguruan egiten den balorazioa.

Helburua: 1.2 Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
1.2.1	Ibarako emakume ezberdinen beharrak kontuan izanda ahalduntze programak (ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak...) antolatu. Ahalduntze programa hauek	Feminismo eta aniztasun saila					1.000€/urteko	Antolatzen den ekimen kopurua. Emakumeen behar eta gogoak ezagutzeko egiten den ekimen kopurua

	Ibarrako emakume ezberdinen (gazte, adineko, migrari...) behar ezberdinei erantzun behar die, horretarako ezinbestekoa izango da emakumeen beharrak eta gogoak jasotzea eta programa hauen diseinuan haien elkarlana bilatzea.						eta hauetan parte hartzen duten emakume kopurua. Emakumeek egiten duten balorazioa.
1.2.2	Tolosaldeko emakumeen etxearen proiektuan parte hartu Ibarrako emakume ezberdinen beharrak kontuan izanda. Proiektu honen baitan Jabekuntza Eskola proiektua bultzatu Ibarrako emakume ezberdinen esakera eta beharrak kontuan izanda.	Politika feminista eta aniztasun saila				Tolosaldeko Emakumeen Etxearen baitan	Tolosaldeko Emakumeen etxearen proiektuan parte hartzea. Proiektu horren baitan Ibarren eta Ibarrako emakumeentzako eskaintza egotea. Jabekuntza Eskolaren proiektuaren baitan Ibarrako emakumeentzako eskaintza kantitatea eta horietan parte hartutako emakume kopurua. Eskaintza horrek Ibarrako emakume ezberdinen egiten duten balorazioa.
1.2.4	Gazteekin, erreferente sustatzaileak (youtuberrak, abeslariak, emakume kirolariak...) indartu, diskurtsotik jarrera aldaketa bultzatzeko estrategiaren baitan. Horren baitako jarduerak antolatu hezkuntza eragileekin elkarlanean. ⁴	Politika feminista eta aniztasun saila + Gazteria				2.000€	Erreferente sustatzaileekin egindako jarduera kopurua eta bertan parte hartutako gazte kopurua, sexuaren arabera banatuta.

⁴ Esaterako, Laibururen kasuan: nesken futbol partidak ikustera joateko irteerak, bertako erreferenteekin ekimenak...

Helburua: 1.4 Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabide horietan

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
1.4.1	Kale hezitzaile programaren inguruko azterketa egin eta zerbitzu honetan hobekuntzak proposatu eta hobekuntza hauek egitekoa den adjudikazioan txertatu.	Gizarte Zerbitzuak						Kale hezitzaileen programaren azterketa egitea. Hobekuntza proposamen kopurua. Adjudikazioan hauek txertatzea.

2. programa: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA

Helburua: 2.1 Gizarte – eta herri – mugimenduetatik berdintasuna sustatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
2.1.1	Berdintasuna lantzen duten gizarte- eta herri-mugimendu edo ekimenak babestu eta bultzatu: baliabideak eta espazioak eskaini, ahotsa eman...	Politika feminista eta aniztasun saila					300€/urteko	Babestu eta bultzatutako ekimen kopurua. Babes horren nolakotasuna.
2.1.2	Gizarte- eta herri-mugimenduak berdintasuna lantzea sustatu horretarako baliabideak eskainiz: formakuntza, aholkularitza...	Politika feminista eta aniztasun saila					500€/urteko	Berdintasunaren lanketan sustatutako edo lagundutako talde kopurua. Hartu-emanean parte hartzen duten norbanako kopurua, sexuaren arabera banatuta.

Helburua: 2.2 Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
2.2.1	Herriko eragileen partaidetzarekin (kirol -eta kultur- elkarteak, mugimendu feminista, etab.), emakumeek parte hartzeko dituzten zailtasunak aztertu eta horiei aurre egiteko neurriak hartu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Herri mailako Feminismo mahaia						Emakumeen parte hartzearen inguruan hausnartzeko egindako saio/bilera kopurua. Parte hartutako eragile kopurua, sexuaren arabera banatuta.

2.2.2	Udaletik edozein gaien inguruan egiten diren parte-hartze prozesuetan berdintasun ikuspegia txertatu emakumeen parte hartzea errazteko. Horretarako neurriak hartuz: parte-hartzeko moduak, ordutegiak, lekuak, lan dinamikak...	Politika feminista eta aniztasun saila						Parte-hartze prozesuetan emakumeen parte hartzea errazteko hartutako neurriak.
2.2.3	Bereziki maskulinizatutako esparruetan emakumeen parte-hartzea sustatzen jarraitzeko neurriak hartu. ⁵	Politika feminista eta aniztasun saila + Kirol saila+ Hezkuntza saila					10.000€	Egiten den egitasmo/jardun kopurua. Egitasmo/jardun hauetan parte hartzen duten herritar kopurua, sexuaren arabera banatuta. Egitasmoetatik eratorritako materiala.
2.2.5	Jai berdinzaleago batzuen bidean kontuan izan beharreko gai eta irizpideak jasotzen dituen katalogo txiki bat egin eta hau jaien antolakuntzaz arduratzen diren pertsona, talde eta eragileekin partekatu.						1.000€	Katalogoa egitea. Katalogoa zabaltzea.
2.2.6	Herriko kultur eragileekin elkarlanean Ibarako kultur eskaintzaren genero	Kultura saila						Azterketa egin. Hartutako neurriak.

⁵ Esaterako, kirolean:

1. Ikastolako kirol-eskaintza genero-ikuspegitik aztertzea eta, beharrezkoa bada, hezkidetzaz-irizpideak kontutan izanda egokitzea, nesken partaidetza sustatzeko.
2. Eskola-kirolean eta haur eta gazteei zuzendutako eskolaz kanpoko kirolean nesken parte-hartzea bultzatzeko ekimenak martxan jartzea. Adibidez, talde mistoak sortuz eta talde mistoen arteko txapelketak antolatuz, eta horietan lanketa bat eginez
3. Genero-rolak zalantzan jarri eta jarduera edo esparru maskulinizatu edo feminizatu (dantza, pilota, pala, etab.) gizonen zein emakumeen aukera-berdintasunean parte-hartzea sustatzeko neurriak martxan jartzea. Adibidez, emakumeei zuzendutako kirol-ikastaro espezifikoak antolatuz, mutilei zuzendutako kanpaina bereziak eginez, etab.
4. Maskulinizatutako kirolean parte hartzen duten emakumeen ikusgarritasuna eta plaza eman (sokatira, pilota, herri kirolak...)

azterketa egin eta berdinzaleagoa izateko neurriak hartu. ⁶							
--	--	--	--	--	--	--	--

⁶ Esaterako:

1. Emakumeen presentzia handitu emakume sortzaileei ikusgarritasuna eta plaza emanaz.
2. Aisialdi ereduaren inguruan hausnartu.
3. Aisialdi guneetan genero ikuspegia gainbegiratzuz eraldatu (liburutegiko apal morea, Galtzatomiken genero ikuspegia).

II. ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA

Bigarren ardatz honetan egituretan oinarritutako eraldaketa bat ematea bilatzen da. Norbere bizitza, lan produktiboa eta bizitzari eusteko lanetan ematen diren desorekak irauli eta erantzunkidetasuna sustatzea da helburua.

Hiru eremutan eragiteko beharra azpimarratzen da VII. Planean, ekonomiak eraldatu eta eskubide ekonomiko eta sozialak bermatu ahal izateko: emakumeentzako lan-duinean, genero ikuspegia duten gizarte politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan. Ondorioz, hiru programa ezberdin bereizten dira:

- **Berdintasuna gizartea eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea:** programa honen bidez, berdintasuna sustatzen da, jendarteak aurrera egin eta garatzeko balio gisa. Balio hori emakumeak eskubideak dituzten pertsonak direla onartzetik abiatzen da, eta balio hori ezarri egin behar da, hezkidetzaren bidez eta prozesu horretan instituzioak, erakundeak eta gizarte osoa erantzunkide izango direla.
- **Emakumeen autonomia ekonomikoa:** programa honen helburua emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea da. Horretarako kalitatezko enpleguak sortu eta pobrezia feminizazioa murriztu behar dira, ezinbestez.
- **Zaintza-lanen ekonomia feminista:** programa honetan, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren zaintza lanen ikusgarritasunean eta balioan sakontzen da, bai eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna bultzatzeko bideetan ere.

Jarraian, hiru programa hauen baitan eta Ibarako errealitatera egokituz identifikatu diren neurri eta ekintza zehatzak.

3. programa: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA

Helburua: 3.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
3.1.1	Hitzaldi, formakuntza eta kanpainak antolatzean berdintasuna kontuan izatea. Horretarako, irizpideak landu eta udal barne nahiz kanpo mailan sozializatu eta aholkularitza eman.	Politika feminista eta aniztasun saila + Sail bakoitza, zeharkakotasunez					300€/urteko	Antolatzen diren hitzaldi, formakuntza eta kanpaina kopurua. Horien inpaktua (parte-hartutako pertsonak, iritsi zaien pertsonak... eta egiten duten balorazioa.)
3.1.2	Berdintasuna eta berdintasunaren aldeko borroka balioan jartzeko egitasmoak bultzatzea. Esaterako berdintasun sariak edo urteko erronka eta lanketa feministen bilduma osatzea.	Politika feminista eta aniztasun saila + Feminismo mahaia (herri eragileena)					500€/urteko	Aurrera eramaten den egitasmo kopurua. Egitasmo hauetaz egiten den balorazioa.

Helburua: 3.2 Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatza, hezkidetzaren bidez

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
3.2.1	Ikastolarekin eta Udalaren artean elkarlanean hezkidetzaren gaia landu: orain arte egin denaren inguruan informatu eta elkarlanean bide berriak esploratu.	Hezkuntza saila + Feminismo mahaia (herri eragileena)						Udala eta Ikastolaren artean egindako bilera eta komunikazio kopurua. Udala eta Ikastolaren artean elkarlan eta koordinazio bideak aurkitzea.
3.2.2	Herrian hezkuntza eragile ezberdinen artean hezkidetzaren landuko duen hezkuntza mahaia eratzeko prozesu bat abiatu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Hezkuntza saila						Mahaia eratzeko prozesua abiatzea. Parte hartutako eragile kopurua. Egindako bilera edo saio kopurua. Mahian parte hartzen duen eragile kopurua.
3.2.4	Izaera orokorrarekin hiritartze proiektuen diseinuan genero azterketa	Hirigintza saila +					Proiektuaren kostearen %5a	Genero azterketa egin den hiritartze proiektu kopurua.

	sartzea. Horretarako, proiektuaren genero analisia egiteko parte hartze prozesuak egin (erabiltzaile nagusiekin, herritar guztiekin edo teknikariek).	Politika feminista eta aniztasun saila						Azkerketa hauetara dedikatutako aurrekontua.
3.2.5	Nerabe eta gazteentzat haien behar, jakinmin eta eskaeren arabera hezkuntza afektibo-sexuala eskaintzea: aholkularitza, ikastaro, hitzaldi... Gaztezuloren jarraipenarekin haien beharrak eta eskaerak adieraz dezatela sustatu horretarako mekanismoak jarri.	Gazteria saila + Gaztezulo					1.500€/urteko	Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko eskaintza (antolatutako eskaintza mota eta kopuruak). Eskaintza hori jaso edo parte hartutako nerabe kopurua eta horiek egiten duen balorazioa.
3.2.6	Haur, nerabe eta gazteekin lana egiten duten edozein motako irakasle, hezitzaile edo gurasori (udalekuak, gaztelekuak, eskola-kirola...) hezkidetzak formakuntza eskaini eta udal zerbitzuetan lan egiteko formakuntza hori baloratu. Esaterako Gaztezulo eta Kale Hezitzaileen kontratazioan kontuan izan.	Gazteria saila + Gizarte Zerbitzuak					Kontratazio kostua	Udalak hezkidetzak formakuntza antolatzea haur, nerabe eta gazteekin lana egiten futen pertsonen bideratuta. Hezkidetzak formakuntzan parte hartutako pertsona kopurua. Haur, nerabe eta gazteentzako udal zerbitzuetako kontratazioetan hezkidetzako formakuntza baloratzea.
3.2.7	Haur, nerabe eta gazteekin LGTBIQ+ eskubideen inguruko lanketa egin.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gazteria saila					5.000€	Haur, nerabe eta gazteekin LGTBIQ+ eskubideen inguruko lanketa egiteko antolaturiko egitasmo kopurua. Egitasmo horietan parte hartutako pertsona kopurua eta egiten duten balorazioa.
3.2.8	Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako udal zerbitzuak (aisialdi eskaintza)	Gazteria saila						Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako udal zerbitzuen genero azterketa egitea. Identifikatutako hobetzeko kopurua.

genero ikuspegitik aztertu eta hobetzekoak identifikatu.							
--	--	--	--	--	--	--	--

4. programa: EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA

Helburua: 4.1 Lan femizatueto lan-baldintzak dignifikatu eta hobetzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
4.1.1	Udaleko lan baldintzetan parekidetasuna bermatzeko neurriak txertatzea: Udal langileen nahiz azpikontratatuta dauden zerbitzuetako langileen egoera genero-ikuspegitik aztertu, eta identifikatutako alderdiak hobetzeko neurriak hartu (langileen ordezkartzeekin elkarlanean).	Politika feminista eta aniztasun saila + Udal mahaia: langileak eta politikoak + Pertsonal saila					10.000€	Langileen baldintzak hobetzeko hartutako neurri kopurua, neurri horien nolakotasuna (zein neurri mota den, nori eragin duen, zertan...) eta neurri horiekiko langileen balorazioa.
4.1.2	Udalan bateragarritasuna eta erantzukidetasuna erraztea: bateragarritasun neurrien asebetetzea neurtzeko azterketa eta langileen beharrei erantzuteko neurriak adostu eta ezartzea.	Politika feminista eta aniztasun saila + Udal mahaia: langileak eta politikoak + Pertsonal saila					2.000€	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna errazteko hartutako neurri kopurua, neurri horien nolakotasuna (zein neurri mota den, nori eragin duen, zertan...) eta neurri horiekiko langileen balorazioa.
4.1.3	Udalak azpikontratutako zerbitzuetan baldintzak zein diren aztertu eta hobekuntzak sustatu, bereziki feminizatutakoetan (zaintza, garbiketa...).	Kontuhartzailletza + Idazkaritza						Udalak azpikontratutako zerbitzuen baldintzen inguruko azterketa egitea. Aztertutako zerbitzu kopurua.
4.1.4	Udalak azpikontratutako zerbitzuetan (adibidez, 2023an berri behar den	Kontuhartzailletza +						Bertako enpresa txikiak babesteko ezarritako neurriak.

	etxez-etxeko zerbitzua) bertako enpresa txikiak enpresa haundien aldean babesten jarraitu. Aldi berean, kontratazio pleguetan lan-baldintza ahalik eta onenen alde egitea.	Idazkaritza						Neurri hauek ezarri diren plegu kopurua.
4.1.5	Zaintzaileen kooperatibak bultzatzeko aukerak aztertu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak						Zaintzaileen kooperatibak bultzatzeko egindako ekintzak.
4.1.6	Emakume zaintzaileei zuzendutako trebakuntza-saioak antolatzea (lan-baldintzak, eskubideak, aseguruak, homologazioa, etab.), betiere ordutegiak kontutan hartuta, eta haien arteko sareak sustatzea. Trebakuntza hauek Guretzako programa eta Tolosaldeako Emakume Etxearen baitan antolatu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak				1.000€/urteko		Antolatutako trebakuntza saioak eta trebakuntza horietan parte hartutako emakume kopurua. Trebakuntzetan parte hartutako emakumeen asebetetzea.
4.1.7	Etxeko langile zerbitzuak kontratatzen dituztenei zuzendutako kanpainak egitea zaintzaileen lan baldintza onak bermatzeko. Aldi berean prozesu hauetan aholkularitza eskaini lan baldintza hobek bermatzeko.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak				500€		Kanpaina hauek egitea eta izandako oihartzuna.

5. programa: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

Helburua: 5.1 Zaintza bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
5.1.1	Eztabaida publikoa sustatzea egungo eredu ekonomikoa eta bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen-ereduaren inguruan Mugimendu Feminista eta gai lantzen duten bestelako eragileekin elkarlanean.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak						Gaiaren inguruko eztabaida publikoa sustatzeko egindako ekimenak. Ekimen horiek izandako eragin edo inpaktua (herrian, parte hartutakoengan...) Ekimen horien antolakuntzan parte hartutako eragile kopurua.
5.1.2	Zaintza lanen egungo egoeraren analisi eta azterketa sakona bultzatu (sistema barruan eta kanpoan daudenak kontuan izanda) lan hauen eta lan hauetan jarduten dutenen aitortza bultzatu eta zaintza krisiaren aurrean egon daitezkeen erroka eta alternatibak identifikatzeko asmoz. Ikerketa honen helburuak bikoitzak dira: erakundeetatik eskaintzen diren zerbitzuen analisia eta hobekuntzak identifikatu eta gizarte mailan zaintzaren krisiaren inguruan hausnarketa kolektiboa eta kontzientzia sortu. Baloratu azterketa hau Tolosaldeko ikuspegitik egiteko aukera.	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak					5.000€	Zaintza lanen egungo egoeraren inguruko analisi eta azterketa egitea. Aztertutako errealitate eta kolektiboen aniztasuna.

Helburua: 5.2 Ordaindu gabeko zainketa-lanak ikustaraztea eta horien balioa aitortzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
5.2.1	Zaintza-lanen naturalizazioaren aurkako kanpainak egitea, zaintza-lanen aitortza eginez eta lan horiek denon erantzukizuna direla azpimarratuz. Emakume eta gizonen arteko arrakala edo desoreka murrizteko beharraren inguruan sentsibilizatzeko.	Politika feminista eta aniztasun saila					1.000€	Zaintza-lanen neturalizazioaren aurka egindako kanpaina kopurua. Kanpaina hauek herrian izandako eragin edo inpaktua.
Helburua: 5.3 Zainteten antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
5.3.1	Herri bizigarriago bat eraikitze aldera Ibarren gunee berde gehiago sortzea, aisialdiarekin lotutako jarduerak garatzeko. Esaterako Azkueko parkea edo Eliza - erreka ondoko gunea.	Hirigintza saila					5.000€	Sortu edo egokitutako gunee berde kopurua.
5.3.2	Pandemia garaian sortutako herri mailako zaintza-sare komunitarioa bultzatu aurrera begirako hausnarketa bat eginez eta izan duen balio soziala aitortu.	Politika feminista eta aniztasun saila + Parekide-mahaia (herri mailakoa) + Gizarte Zerbitzuak						Ibarrenko zaintza-sare komunitarioa bultzatzeko eta balio soziala emateko egitasmo edo hartutako neurriak.
5.3.4	1. mailako menpekotasuna daukaten pertsonentzako eguneko zentroaren zerbitzua Ibarren bertan eskaintzeko aukera aztertu eta bultzatu.	Gizarte Zerbitzuak + Alkatetza						Eguneko zentroa Ibarren izatea bultzatzeko egindako ekintzak.

III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Azken ardatz honetan, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko herri eta bizitzak lortzeari begirako programa eta helburuak barne-hartzen dira. Emakunderen VII. Planean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean egiten den definizioarekin egiten dute bat, eta baita emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenarekin ere (2011ko maiatzaren 11, Istanbul). Modu honetan, emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen du Emakundek generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun-gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

Honi aurre egiteko, hiru programa hauek jasotzen dira txostenean:

- **Sentsibilizazioa eta prebentzioa:** programa honen bidez herritarren sentsibilizazioa sustatzea bilatzen da gaiaren inguruan, honek prebentzio lanetan ere laguntzeko, eta horrez gain, esparru guztietan indarkeriaren arloan esku hartzen duten profesionalen etengabeko trebakuntza jasangarria sustatzen jarraitzea, emakumeen ahalduntze pertsonalaren ikuspegia txertatuz. Prebentzioa indartu eta finkatzeko mekanismoak sustatzea ere bilatzen da.
- **Detekzioa, arreta eta berroneratzea:** programa honetan Emakunderen VII. planean jasotzen da arreta emateko sistemaren eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzea, eta horrez gain, arreta emateko sisteman txertatzea norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea. Horrez gain, kasuen detekzio edo antzemate goiztiarraren garrantzia ere hor legoke, arreta integrala ematearenarekin batean.
- **Erakundeen arteko koordinazioa:** arreta integrala eskaintzeko beharraren harira, beharrezkoa da arreta honetan esku-hartzen duten eragileen arteko koordinazioa sustatu eta finkatzea. Helburu hori da programa honek biltzen duena.

Jarraian hiru programa hauen baitan Ibararako identifikaturiko neurri eta ekintzak:

6. programa: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Helburua: 6.1 Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
6.1.1	Desberdinkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko harremana ikusarazteko kanpaina eta ikastaroak egitea. Parekidetasun mahaiarekin elkarlanean.	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila + Parekide-mahaia (herri mailakoa)					1.000€/urteko	Egondako kanpaina kopurua eta izandako eragin edo inpaktua
Helburua: 6.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
6.2.1	Ibarrako Indarkeria Protokoloaren jarraipenerako espazioan identifikatzen diren formakuntza beharrak jaso eta erantzuna eman. Hortaz gainera, espazio horretan dauden eragileentzako, nahiz estrategikotzat jotzen diren bestelako eragileentzako, formakuntza saioak antolatu, ahalduz pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatuz: - Kolektibo zaurgarrietako emakumeek pairatzen duten indarkeriaren inguruan (migrariak, adinekoak, landa eremukoak, aniztasun funtzionala dutenak, LGTBIQ+, adinez txikikoak...).	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila					1.000€/urteko	Formakuntza beharrak identifikatzeko egindako bilera/saio/galdetegi kopurua eta bertan parte hartutako eragile kopurua. Identifikatutako formakuntza beharrak eta horiei erantzuteko antolaturiko formakuntzak. Formakuntza motak/gaiak, zuzendutako eragileak. Parte hartutako pertsona edota eragile kopurua. Formakuntzetan parte hartutakoen balorazioa.

	- Indarkeria matxistaren detekzio edo antzemate goiztiarraren inguruan (bereziki psikologikoa). - ...							
Helburua: 6.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
6.3.1	Indarkeria matxistaren inguruko kontzientzia sortu eta prebentziorako kanpainak abiatu. Kanpaina orokorrak zein espezifikokoak: jaietan, pandemian...	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila					1.000€/urteko	Indarkeria matxistaren inguruko kontzientzia sortzeko martxan jarritako kanpainak eta hauek izandako eragin edo inpaktua.
6.3.2	Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programak bultzatu, bereziki kolektibo zaugarrienei bideratuta: gazteak, adineko emakumeak, landa-eremukoak, migrariak, LGTBQ+ kolektiboak, adinez txikikoak... Prebentzioan eragile ezberdinekin elkarlana bilatu.	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila					1.000€/urteko	Kolektibo zaugarrienei bideratuta aurrera eramandako prebentzio programak (zein kolektibori bideratua, zein programa, zenbatek parte hartu, ze inpaktu...). Programa hauetarako elkarlanean aritutako eragile kopurua.
6.3.3	Indarkeria matxistaren aurrean dauden zerbitzuen eta horietarako sarbideen inguruko informazioa zabaltzeko kanpainak egin tokiko komunikazio euskarriez baliatuz. Esaterako Indarkeria matxistaren aurkako protokoloaren bideo dibulгатiboa publiko egin, udalaren euskarri komunikatiboetan (jaietako egitaraua, webgunea, Feminismo eta aniztasun sailetik egiten diren publikazioak...) indarkeria matxistaren	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila					1.500€	Indarkeria matxistaren aurrean dauden zerbitzuen eta horietarako sarbideen inguruko informazioa zabalkunde kanpainak. Horiek izandako eragin edo inpaktua (zenbat jenderena iritsi den?).

	aurrean eskura dauden telefonoak publikatu.							
6.3.4	Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio eta prebentziorako auzokideen arteko kanpaina bat egin: auzokideen artean akonpainamendua egokian formakuntza eta zerbitzuek zabalkuntza eginez.	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila					5.000€	Auzokideen arteko kanpaina egin izana. Formakuntza orduak eta parte hartutako herritar kopurua. Parte-hartzaileen balorazioa Izandako eragin edo inpaktuak.

7. programa: KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA

Helburua: 7.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren antzemate goiztiarra handitzea								
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
7.1.1	Parekidetasun mahaitik edo indarkeria matxistaren aurkako protokoloaren jarraipen batzordetik detekzio goiztiarrean parte har dezaketen (herri) eragile batzuk identifikatu eta hauei detekzio honetan inplikatzeko moduak bilatu, eta jaso beharreko formakuntza eskaintzea. Esaterako, botikaria, jubilatuen etxea, herri mugimenduak...	Gizarte Zerbitzuak + Politika feminista eta aniztasun saila						Gaia lantzeko egindako saio/bilera kopurua eta parte hartutako eragile kopurua. Detekzio goiztiarrean parte har dezakeen identifikatutako herri eragile kopura. Identifikatutako horiekin egindako lanketa / formakuntza.
7.1.2	Jaietan edo herri mailako okasio berezietan, indarkeria matxistari loturiko gertaerei atentzioa eskaintzeko zerbitzuak jarri (telefono zenbakia, postua...)	Politika feminista eta aniztasun saila + Parekide-mahaia					3.500€/urteko	Martxan jarritako egitasmo kopurua. Egitasmo hauen erabilera datuak. Egitasmoez egiten den balorazioa.

Helburua: 7.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
7.2.1	Tolosaldeko Emakume Etxearen baitan indarkeria matxista kasuen aurrean dauden zerbitzuen analisia eta hobetzeko alderdiak identifikatu. Zerbitzu gehigarriak eskaintzearen aukera baloratu: <ul style="list-style-type: none"> - Autolaguntza taldeak - Baliabide ekonomiko gehigarriak - Aholkularitza zerbitzua... 	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak						Analisia bera. Identifikatutako alderdi kopurua. Martxan jarritako zerbitzu kopurua. Zerbitzu hauen erabilera datuak.

Helburua: 7.3 Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
7.3.1	Indarkeria kasuen aurrean protokoloak hala aurreikusten duen kasuetan egin beharreko salaketa publikoak egiten jarraitzea.	Protokoloaren jarraipen batzordea + Mugimendu Feminista						Protokoloak ezarritako kasuetan dagokion salaketa publikoa egitea.
7.3.2	Urteroko indarkeria kasuen irakurketa orokor bat egin eta mugimendu feministarekin elkarlanean salaketa edota babes erakustaldi publiko bat bultzatzea (adibidez azaroaren 25aren bueltan).	Parekidetasun mahaia + Protokoloaren jarraipen batzordea						Urte horretan Ibarra izandako indarkeria kasuen irakurketa egitea eta anonimotasuna mantenduz hori salatzeke egitasmoak egitea.
7.3.3	Urtero, azaroak 25ean, Mugimendu Feministarekin bat egin eta herritarrei publikoki kalera ateratzeko deia egin	Politika feminista eta aniztasun saila					1.000€	Egindako deialdiak. Deialdiak egiteko erabilitako materiala.

	udaletik. Horretarako apropos ikusitako komunikazio kanalak erabiliz.							
--	---	--	--	--	--	--	--	--

8. programa: ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

Helburua: 8.1 EAEn emakumeen aurkako indarkeria jorratzen duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
8.1.1	Jada badagoen Indarkeria Protokoloarekin jarraitu, honen jarraipen eta ebaluazioa eginez eta identifikatzen diren hobekuntzak txertatuz (formakuntza beharrak, esaterako).	Politika feminista eta aniztasun saila + Gizarte Zerbitzuak						Protokoloaren jarraipen eta ebaluaziorako bilerak egitea. Bilera horietan parte hartutako eragile kopurua.
8.1.2	Erakunde arteko elkarlan modu ezberdinak esploratu eta sustatu. Adibidez, feminismo saileko teknikaria sartzen denean, eragileekin aldebiko erronda bat egitea, elkar-ezagutzeko.	Politika feminista eta aniztasun saila						Eragileekin aldebiko erronda egitea.

5. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Berdintasun planaren kudeaketa sistema

Ibarrako II. Berdintasun Planaren jarraipen eta ebaluaziorako arduradunak eta euskarriak jasotzen dira atal honetan. Esan bezala, Berdintasun Planak Udalean berdintasuna txertatzeko tresna bat dira, hurrengo urteetan politika feministan gidatuko dituen tresna. Baina plana aurrera eraman eta jarraipena egitea ezinbestekoa da plana baliagarri izateko. Horregatik ezinbestekoa da planari jarraipena emango dion egitura edo kudeaketa sistema ondo definitzea.

Planaren implementazio eta jarraipenean eragile eta koordinazio espazio ezberdinek parte hartuko dute, bakoitza bere ardura eta zereginekin.

Planari jarraipena emango dion egitura nagusia sailen arteko mahai feminista izango da. Beti ere espazio honen lidergoa Politika Feminista eta Aniztasuna sailak izango du. Modu honetan, udalean sailen arteko koordinazioa hobetu eta berdintasuna zeharkakotasunez landuko da. Berdintasuna esparru guztietatik eta guztien ardura eta inplikazioarekin egitea ezinbestekoa da, egiten den lana sail guztien ikuspegia eta ekarpenarekin aberasteko eta berdintasunaren aldeko lana sail guztietatik egiteko.

Mahai hau osatzeke dagoenez (2022 urtean zehar osatzea aurreikusten da), oraindik definitzeko dauka bere funtzioak, funtzionamendua eta lan dinamika, baina planaren jarraipenerako gutxienez urtean 2 aldiz bildu beharko litzateke:

- Bilera bat urteko balorazioa egiteko.
- Bilera bat urteko lan egutegia antolatzeko.

Aldi berean herri mailako eragileekin eta udalaren artean berdintasuna lantzeko eratuko den espazioa ere planaren jarraipenean babesa eta laguntza emateko beste espazio bat izango da, bereziki herrira begirako ekintzei dagokionean. Espazio hau ere oraindik sortzeko dagoenez zaila da aurrez bere funtzio eta funtzionamenduak zehaztea, hala ere, planaren jarraipenari dagokionean espazio honek sail arteko mahaiaren bilerekin bateratsu joan beharko litzateke, modu honetan elkar-berasteko.

Esan bezala, eta planak berak jasotzen duen moduan, espazio hauek oraindik sortzeke daudenez, eta behin sortuta ere martxa eta dinamika propioa hartzeko bere denbora beharko dutenez, bitartean Politika Feminista eta Aniztasuna saila izango da planaren jarraipenaren ardura hau izango duena. Planak jaso moduan, 2022rako sailari aholkularitza teknikoa eskainiko dion berdintasun dinamizatzailea kontratatzea aurreikusteen da, honek sail honen planaren jarraipenerako gaitasuna nabarmen handituko du, baita koordinazio espazioak dinamizatzeke ere.

Hauek izango dira planaren jarraipenean egin beharrekoak:

- Planaren betetze mailaren jarraipena egitea. Horretarako, urtez urteko plan operatiboa oinarri hartuta, ekintza ezberdinak abiatzeko behar diren mekanismoak aktibatu eta hauei jarraipena egiteko ardura izango du, baita ebaluaketa egitearena ere.
- Planaren funtzionamendu egokia bultzatu eta balioan jartzeaz arduratuko da, hutsuneak edo zailtasunak detektatu eta hobekuntzarako proposamenak eginez.
- Eragile ezberdinen arteko koordinazioa bideratu eta bultzatzea.

Plan operatiboak:

Berdintasun plana 4 urtetarako plan zabal bat izanik, garrantzitsua da hori lurreratzeko eta egokitzeko lanketa egitea. Horretarako, 2 urtetik behin plana oinarri hartuta 2 urterako plan operatiboak egingo dira.

Plan operatibo hauek sail arteko mahaiak egingo ditu Berdinideanen laguntza eta aholkularitzarekin, eta herri mailako espazioarekin kontrastatu eta osatuko da. Plan operatibo hauek egiteko plana oinarri hartzeaz gain, urtero egindako urte bakoitzeko balorazio edo ebaluazioak ere kontuan izan beharko ditu.

Aurrekontua

Hau izango da urtez-urte plan honen garapenerako aurreikusten den aurrekontua:

	GOBERNU ONA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK	
2022	18.000,00€	4.900,00€	7.800,00€	13.875,00€	44.575,00 €
2023	18.000,00€	2.900,00€	11.800,00€	13.875,00€	46.575,00 €
2024	22.000,00€	2.900,00€	11.800,00€	13.875,00€	50.575,00 €
2025	22.000,00€	2.900,00€	20.800,00€	13.875,00€	59.575,00 €
	80.000,00 €	13.600,00 €	52.200,00 €	55.500,00 €	

Planaren ebaluazio-sistema

Berdintasun Planaren ebaluazioari dagokionez, batetik, ekintza bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa, eta bestetik, urteroko ebaluazio orokorrakoak egin beharko dira.

Ekintza bakoitzaren ostean ekintza beraren ebaluazioa egingo da. Horretarako, ekintzen jarraipen fitxak eta adierazleak osatuko dira (txosten honek eranskin moduan jasotakoak) eta ekintzak burutzeko ardura dutenek beteko dituzte ekintza burutu eta gero.

Bestetik, urte bakoitzaren amaieran urte horretako ebaluazio orokor bat egitea oso garrantzitsua da. Urtean zehar egindako eta horien emaitzen balorazio orokor bat egin eta hurrengo urterako ikasteko. Ebaluazio hau sailen arteko mahaiak egingo du eta ardatzak eta ardatz bakoitzeko helburuen betetze maila ebaluatuko ditu, egindako aurrerapenaren ikuspegi orokorrako bat izateko eran.

Honek guztiak planaren amaierako ebaluaketa egiteko balioko du, ekintza konkretuen inguruko informazioa emango baitu, baita urtero eginiko balorazio orokorragoen bitartez urteen eboluzioa ere. Hau da, amaierako ebaluaketa elikatzeko ezinbestekoak izango dira.

Izan ere, urtero jasotako datuekin azken ebaluaketa bat egingo da jakiteko zenbateraino bete duen Planak ezarritako helburuak eta Ibarako hurrengo Berdintasun Plana moldatzeko behar diren oinarriak finkatzeko.

6. ERANSKINAK

Ekintzen betetze mailaren ebaluaketa

Ekintzaren arduradunek bete behar dute eta amaitutakoan Politika Feminista eta Aniztasun sailari helarazi behar zaizkio, jarraipena egin dezan.

EKINTZEN BETETZE MAILAREN EBALUAKETA			
Ardatza			
Programa			
Neurria			
Ekintzaren kodea eta izena			
Ekintzaren deskribapena			
Arduraduna		Aurrekontua	
Epea			
Jarraipena eta betetze-maila			
Burutzeko arazoak			
Ekintza balorazioa			
Inplikazio ondorioak eta			
Parte hartzea (sexua, adina)	Emakumeak:	Gizonak:	Beste bat:
	Adina:	Adina:	Adina:
Adierazleak			

Neurrien ebaluazioa

Politika Feminista eta Aniztasun sailak (edo osatuta balego sailen arteko feminismo mahaiak) betetzeko:

NEURRIEN EBALUAZIOA	
Ardatza	
Programa	
Neurria	
Egindako ekintzen portzentaia	
Planean aurreikusi gabeko ekintzak	
Aurrekontua	

Neurrien ebaluaketa:

- Neurria osorik garatzea lortu da?
- Ze arazo egon dira hau garatzeko?
- Zein izan da parte hartze maila neurri estrategikoa osatzen duten ekintzetan?
- Zenbateraino bete dira hartutako konpromisoak?
- Zer aldaketa gertatu dira edo ze eragin izan dute garatu diren ekintzek herrian?

Programen ebaluazioa

Politika Feminista eta Aniztasun sailak (edo Sailen arteko feminismo mahaia) betetzeko:

PROGRAMEN EBALUAZIOA	
Ardatza	
Programa	
Garapen maila	
Programa bakoitzeko neurrien garapen maila	

Programen ebaluaketa:

- Egokiak al dira programa bakoitzaren barnean txertatutako neurriak?
- Zein izan da arlo bakoitzaren konpromiso maila programa bakoitzarekiko?
- Zein arazo egon dira konpromiso hauek betetzeko?
- Egindako ekintzak gizatalde ezberdinei edo perfil ezberdinetako herritarrei zuzendu dira (emakumeak, gizonak, gazteak, adinekoak, migrariak...)?
- Egindako ekintzek onurak ekarri dizkie gizatalde edo perfil jakin bateko herritarrei?
- Herritarren edo herriko eragileen partaidetzarik egon da ekintza hauek betetzerako garaian? Zeinena?
- Baliabide, zerbitzu edo mekanismo egonkorrik jarri da martxan (koordinaziorako...)?
- Egingarriak dira arduradunei esleitutako lanak?
- Ze arazo egon dira Planaren ebaluazio lanak egiteko?
- Ezarritako ebaluazio metodologia, egokia da?

AHOLKULARITZA ETA DINAMIZAZIO TEKNIKOA

